

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure enpresak baliabide fisiko batzuk ditu, hala nola, instalazioak (enpresa administrazioak herrialde desberdinetan), sistema informatikoak (bezeroekin komunikatzeko, deiak hartzeko, webgunea kontrolatzeko...) eta banaketa sarea (gure langileen bitartez gure zerbitzua eskainiko diegu laguntza behar duten pertsoneri edozein lekutan egonda ere).

Bestetik, baliabide intelektualak ditugu, hau da, ukiezinak direnak. Enpresak logo eta izen propio bat du, sektore berdineko beste enpresetatik bereizten duena. Gainera, bezeroen datu baseak gordetzen eta kudeatzen ditugu haien inguruko informazioa babesteko (izen abizenak, telefonoa, helbidea...) eta beste enprekin elkarteak sustatzen ditugu.

Giza baliabideetan, sormena ezagutzak eta gaitasun komertzialak lantzen dira gure logoa, izena eta webgunea diseinatzeko eta hobetzeko eta gure zerbitzua erakargarria eta baliagarria dela erakusteko.

Bukatzeko, finantza baliabideak ditu. Hasiera batean gure enpresa sortzeko eta finantzazioa aurrera eramateko kreditu bat eskatu beharko genuke. Horretaz gain, bezeroek hilabetero gure zerbitzua jasotzeagatik kuota bat ordaintzen digute eta ahal dugun neurrian irabaziak lortzeko, lehen esan bezala, beste enpresa batzuen irabazien ehuneko zati bat jasoko dugu.

Enpresako baliabideak efizientziaz kudeatzeko eta errentagarritasuna lortzeko, baliabide horiek aplikatzeko moduak aztertu behar ditugu.